

I GIZA PROBA

PERTSONAK EGINIKO HARRIAREN ARRASTEA

52. Art.- Modalitate honetan jarduten diren kirolariek bere esfortzua harria ondorengo moduetako batean arrastatzeko egingo dute:

- Probalariak behi-aziendaren probetan jarduten diren modu berean. Alegia, harriek daramatzaten heldulekuen bidez bultzatuz edo tiratuz, tresna bakar bat ere erabili gabe.
- Idi eta giza-proba guztietan ezartzen den ziriarekin katea tiratuz.

53. Art.- (b) atalaren arabera jarduten direnean, partaideek kateak, kakoa eta uhala erabili ahal izango dituzte.

54. Art.- Proba 2 edo pertsona gehiagok egiten dutenean, organizazioak balantzin bat, bilur eta kate bat ezarri beharko ditu.

55. Art.- Partaideak galtzetekin, abarketekin, ohiko botekin, zapatekin, etab. jardun ahal izango dira, baina zolan eranskin berezirik ezarri gabe.

56. Art.- Giza Probako probetan, hezitzaile-erluzaina jarduleen alboan ibili ahal izango da, probalekuaren goiburuetako batean mantendu ordez. Bere misioa aholkua ematera murriztuko da, izan ere, bestelako laguntzarik ematea erabat debekatuta dauka. Ezin izango ditu partaideak ukitu, ezta harria ere, probak irauten duen bitartean. Arau hau urratzen den lehen aldian, ohartarazpena egingo zaio eta errepikatzen denean berriz, probalekutik kanporatua izango da.

57. Art.- Laguntzaileak atletari lagundu ahal izango dio uhalaren aldaketa hori egin behar izaten denean, hura erabat edo partzialki hautsi izateagatik, eta jardulearen errendimendu normala eragozten duenean.

58. Art.- Giza Probako atleta oro, probara ekartzen duen kate, uhal eta gakoarekin jardun ahal izango da; tresna horiek kantxako EPAILEAK aztertu beharko ditu, zeinek erabiliak izan daitezten ontzat eman beharko dituen.

59. Art.- Giza Proban parte hartzen duten atletek ezin izango dute probalekuan ahoa freskatzeko erabiliko zuketen edaririk isuri.

60. Art.- Giza Probako probetan, soilik matxuratzat hartuko dira balantzinaren haustura eta bilur apurtuak (solteak ez), 2 edo partaide gehiago daudenean; katea partaide bakarra izaten denean eta soilik balantzina edo katea organizazioak ezarri dituenean eta pertsonalak izaten ez direnean, bere konponketarako 10 minutuko epe batekin kontaktatuz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA:

Harri arrasteko probetan beste gorabeherarik sortzen bada eta lehiaketa-araudian jasota ez bada, epaileen irizpidearen arabera ebatziko da, irizpide eta lehentasun nagusia animalien osasuna eta ongizatea izanik.



AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA:

Lurralde arteko lehiaketen kasuan, kirolari batek arau-hauste bat egiten badu ez dagoen probintziako federazio baten eremuan, euskal federazioaren diziiplina- eta lehiaketa-organoak izango dira eskudunak.

Modu berean jokatuko da lurralde-lehiaketetako txartelak pilatzen direnean; euskal federazioaren diziiplina- eta lehiaketa-organoak izango dira eskudunak.